



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

ESCUELA UNIVERSITARIA DE MAGISTERIO DE BILBAO
BILBOKO IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA

HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA

2014-2015 ikasturtea

**Konfiantzaren Pedagogia proiektuko eskola eta familiaren arteko
komunikazioa.**

Egilea: Larraitz Goitia Atxabal

Zuzendaria: Laura del Castillo Prieto

Data eta sinadura: Leioan, 2014ko ekainaren 4an

ZUZENDARIAK O.E.

EGILEAK O.E.

A U R K I B I D E A

Sarrera.....	3
1. Esparru teoriko eta kontzeptuala	4
1.1. Familia eta eskolaren arteko komunikazioa.....	4
1.2. Familia eta eskolaren arteko komunikazioaren beharra haurren hezkuntzan eta garapen pertsonalean	6
1.3. Komunikazioa oztopatzen duten faktoreak	8
1.4. Komunikazioa indartzeko estrategiak.....	10
2. Egoeraren diagnostikoa: beharrak identifikatzen.	12
2.1. Diagnostikorako metodologia: diseinua eta prozesua.....	12
2.2. Metodologiaren garapena: emaitzak eta beharrak identifikatzea.....	14
3. Esku hartzearen diseinua: “Kaiera” ibiltaria	22
3.1. Helburuak.....	22
3.2. Kontestua	23
3.3. Metodologia	23
3.4. Ebaluazioa.....	23
4. Ondorioak	24
5. Erreferentzia bibliografikoak.....	25
E R A N S K I N A K	27
1. ERANSKINA: Elkarrizketarako gidoia.....	28
2. ERANSKINA: Kategoria sistema.....	31

Konfiantzaren Pedagogia proiektuko eskola eta familiaren arteko komunikazioa.**Larraitz Goitia Atxabal**

EHU/UPV

Lan honen helburua, Bizkaiko Ikastola batek, bi urte aurrerago jarritako metodologia berritzaile baten diagnostiko partziala burutzea izan da. Metodologiak ezarritako printzipio guztietatik, “Ikastola, familiarekin eta komunitatearekin komunikazioan” printzipioa hartu da. Diagnostikoa burutzeko, elkarrizketa erdi estrukturatuaren bidez informazioa bildu da, eta ondoren, kategoria sistema baten bitartez emaitzak atera. Emaitza hauetatik, ikastolako kideen eta gurasoen esperientziak alderatu dira beharizanak identifikatuz. Parte hartzaileen artean orokorrean bat etorri badira ere, adina, hizkuntza eta denbora ezak eragina dutela ondorioztatu da komunikazio eta parte hartze egoki bat mantentzerako orduan. Azkenik, beharizanak esku artean izanda, esku hartze baten diseinua proposatu da behar hauei erantzuteko asmoz.

Haur Hezkuntza, Konfiantzaren Pedagogia, komunikazioa, familia, eskola

El objetivo de este trabajo, es realizar el diagnóstico parcial de un proyecto de una Ikastola Vizcaína. De todos los principios que plantea la metodología, se ha cogido el principio “Ikastola, en comunicación con la familia y la comunidad”. La información pertinente se ha recogido mediante una entrevista semiestructurada dirigida a los padres y a los profesionales de la misma ikastola. En base a un sistema de categoría se han sacado los resultados de los cuales se han identificado las necesidades. Aunque, en un porcentaje alto los participantes hayan coincidido en algunos aspectos, se puede observar como la edad, la lengua y la falta de tiempo pueden afectar directamente tanto la comunicación con la escuela como el grado de participación en ella. Por último, una vez identificadas las necesidades se ha propuesto el diseño de una intervención para mejorar la situación.

Educación Infantil, Pedagogía de la confianza, comunicación, familia, escuela

The aim of this paper is to carry out a partial diagnosis of a project in a Private School of Biscay. From all the principles brought up by the methodology, the selected one has been “Communication among Ikastola, families and community”. The corresponding information it is been gathered by means of a semi-structured interview addressed to parents and to professional members of the institution. On the basic of a system of category there have been removed several results, where important needs could be identified. Although, many participants have coincide in a high percentage regarding aspects, it could be observed how age, language, and lack of time can affect directly both the communication with the school and degree of participation in it. Lastly, once identified the needs, it is been proposed a design of an intervention in order to improve communication.

Childhood education, Pedagogy of trust, communication, family, school

Sarrera

Bizkaiko kostaldeko Ikastola hau betidanik bere hezkuntza sistema hobetzen saiatu izan da. Azken urteotan, gizarte errealitatea dela eta, are gehiago sentitu du 1992tik ezarritako metodologia aldatzeko beharra eta nahia. Berebiziko garrantzia duela badakite 0-6 bitarteko etapak, haurrak bere garapen emozionala eta kognitiboa lantzen duen unea baita. Ikastolako kideak eta batez ere ikasleak seguru eta gustura sentitu daitezen, konfiantzaren beharra zegoela ikusi zuten, haurra, bera bere buruarekin eta ingurukoekin seguru sentitu dadin eta segurtasun horrek ematen dion konfiantzaz bere ezagutza eta jakintza handitu ditzan. Hortaz, ikastolako profesionalek pedagogia hobetzeko behar baten aurrean, estatu mailako pedagogia berritzaileen artean, Arizmendiko Konfiantzaren Pedagogiarekin topo egin zuten. Haurraren ahalmenak errespetatzea eta sustatzea oinarri dituen sistema berritzailea. 2013. urtean Konfiantzaren Pedagogiaren sistema jarri zen martxan haurren ikaskuntza prozesua, gurasoen parte hartzea, irakasleen lan dinamika eta ikastola barruko partaideen harremanak hobetu nahian.

Hau horrela, Pedagogia honen atal guztiak ikertzea ezinezkotzat jota, lehengo irizpidearen diagnostikoa burutzea erabaki da – Ikastola, familia eta komunitatearekin komunikazioan-. Ikastola honetako gurasoek eta profesionalek komunikazioaren eta parte hartzearen aurrean duten jarrera diagnostikatuko da, teorian egin beharrekoa eta errealitatean egiten dena alderatuz. Aurreikus daiteke, hasierako helburu orokorra hau bete dela eta ondorioztatu da, gurasoen aldetik aspektu edo faktore ezberdinak balizko papera betetzen dutela komunikazioan: adina, egoera soziala, ikastolan betetzen duten papera eta hizkuntza.

Lan honek berarekin dakar, hasteko alderdi teoriko bat. Hemen, pedagogia honen sortzailearen hitzak ikusiko dira eta beste hainbat autorek gai honen inguruan ematen duten informazioa. Bigarren kapituluan, familia eta ikastolaren arteko komunikazioa printzipioaren diagnostikoa egiten da. Errealitatea jasotzeko metodologia, kualitatiboa erabiliko da eta informazioa lortzeko erabiliko den tresna elkarrizketa erdi estrukturatua izango da. Lortutako emaitzekin kategoria sistema bat osatu da. Argi ikusi da, guraso batzuek faktore edo ezaugarri erabakigarriak dituztela printzipio honetan eragiten dituztenak. Kasuan kasuko, detektatu diren faktoreak adina, guraso elkartean egotea, lana eta hizkuntza izan dira. Emaitza hauen aurrean, balantza bat egin da diagnostikatutako ahulgune guztien artean esku hartze bat proposatu ahal izateko. Hori horrela, azken kapitulari leku emango zaio esku hartze baten diseinua proposatuz.

1. Esparru teoriko eta kontzeptuala

1.1. Familia eta eskolaren arteko komunikazioa

La escuela no puede seguir haciendo lo que siempre ha hecho

como si nada hubiera cambiado,

como si su función fuese siempre la misma.

Miguel Ángel Santos Guerra

Haurren eskolaratze goiztiarraren inguruko eztabaida mahai gainean dago. Errealitatea da, inoiz baino gehiago, familiak eskolaren beharra duela umeen heziketarako eta honek eskolarentzat erronka berriak ekarri ditu. Hala diote Tuesca, Maritza, eta Navarrok, (2012):

Es necesaria una forma de enfocar la educación en la familia, y la necesidad de su participación en ámbitos sociales. La sociedad ha sufrido una evolución en los últimos tiempos que ha repercutido en la familia y la escuela. Tanto es así que uno de los temas más destacados respecto a la educación en estos días es la colaboración entre ambas. (121, 122, or.)

XXI. mendeko gizartean aldaketak ematen ari dira, horien adibide dugu, familietako estrukturan eta dinamikan egon diren berrantolaketak. Orain dela gutxi arte familia kontsideratzen zen seme alaben lehengo sozializatzaile nagusia, umearen lehen urteetan behintzat eta orain eskolarekin partekatu behar du erantzukizun hau. Hori dela eta eskolaratze goiztiarrak itzelezko pisua hartu du. (Castro, et al., 2007)

Gonzalezek (2014) ikerketek diote, gizarteko aldaketa sozioekonomikoen, familiak oztopo eta zailtasun ekonomikoen aurrean jarri dituztela eta horregatik familien barrenean eraldaketa eman behar izan direla. Horien adibide dira, lan munduan sartzeko zailtasunak, baldintza ekonomiko txarrak, amatasun adina eta abar. Familiek oztopoez gain, estrukturan aldaketak jasan dituela ere azpimarratzen du, familia tradizionalen modelo hautsi eta orain emakumea ere lan mundura sartzen ari dela, arrazoi kultural edo ekonomikoengatik. Hori dela eta, lan ordu zurruntara egokituak daude eta horrek, seme alabei eskaintzeko duten denbora mugatu eta murriztu du. Eta faktore hauek eskola eta familiaren arteko komunikazio horretan eragina dutela dio, nahiz eta, beste faktore batzuk ere aipatzen dituen; etorkinak, bikote banaketak, seme alabak izateko adina eta familia mota aniztasuna.

Egoera sozial honen aurrean eta beharizan hauei erantzun egoki bat emateko asmotan, X Ikastolak Konfiantzaren Pedagogia martxan jartzea erabaki du, Rafael Cristobal pedagogia honen sortzailearen laguntzarekin. Hobeto ulertzeko Cristobalek (2010) giza

psikologiaren ezagutzan oinarritutako pedagogia berritzailea dela dio eta psikologia, pedagogia eta espazioekin lan egiten du umearen sena eta seinaleak errespetatzeko, haurren jakingura berpiztuz eta haurrak gustura ikasiz. Hamar irizpide ezberdinek osatzen duten pedagogia berritzailea da: 1. Ikastola, familiarekin eta komunitatearekin komunikazioan, 2. Ume guztientzako ikastola, ikastola inklusiboa, 3. Adin ezberdinetako umeen arteko komunikazioa, 4. Autonomiaren sustapena, 5. Umearen berezko erritmoaren errespetua, 6. Hiru dimentsioko egituren aberastasuna, 7. Espazioaren erakargarritasuna, 8. Umeen zaurien zaintza, 9. Zaintzailearen zaintza, 10. Etengabeko ebaluazioa. (Cristobal, 2010: 399)

Ikusi bezala, irizpideetako bat “Familia eta eskolaren arteko komunikazioa” da. Lan hau horretaz informatzean eta ondoren errealitatean egiten dena eta teorian esaten dena diagnostikatzeko zentratuko da. Izan ere, haurren garapen esparru guztietan funtsezko papera betetzen duen alorra da. Cristobalek (2010) azpimarratu nahi du, eskola eta gure ingurua osatzen duten pertsonen funtsezko papera betetzen dutela pertsonen garapen osoan, bizimoduan, eta orokorrean munduari aurre egiteko bere buruaz eta ingurukoekin duen konfiantzan. Eta eskolako espazioa hitz hauekin deskribatzen du:

El aula infantil está configurada por un espacio que alberga unos niños, y unos educadores a los que los padres han configurado su cuidado durante horas importantes de la semana. Así pues, niños, cuidadores secundarios y cuidadores primarios constituyen los sujetos del aula infantil. (399. or.)

Hala ere, umeak ikastolako hezitzailearekin lotura afektiboa lortu bitartean eta Ikastola eta etxearen arteko zubia eraiki arte, aita, ama, zein zaintzailea, beste kide bat gehiago izan behar da ikastolan. Horrez gain, gurasoek gelako dinamikan parte hartzeko aukera izan behar dute eta berauentzako egokitutako txoko bat izan. “El proyecto arquitectónico deberá, en consecuencia, otorgar una importancia central a los lugares y circuitos que permitan a la familia penetrar en el centro escolar, sin interferir con el desarrollo de la actividad pedagógica llevada por los educadores.” (Cristóbal, 2010: 400). Eskolako espazioa hortaz, familia, irakasle eta ikasleek osatzen dute orokorrean eta horrek hiruren arteko interkomunikazio eskatzen du, “la comunicación entre estos tres partenaires constituye el eje central del cuidado de los niños en el grupo de la escuela infantil”. (Cristóbal, 2010: 399)

1.2. Familia eta eskolaren arteko komunikazioaren beharra haurren hezkuntzan eta garapen pertsonalean

Cristobalez gain, beste egile batzuek ere, familiaren papera eta presentzia haurren hezkuntzako lorpenetan garrantzi handikoa dela diote. Brunner-ek (2003) (Alcalay, Milicic eta Torretti 2005ean aipatzen den bezala) eskolako emaitzetan bi faktorek dutela garrantzia dio, lehenengoa haurraren inguru soziofamiliarak eta bigarrena, eskolaren eraginkortasunak. Horrez gain, Comellasek (2009) haurrarentzako eskola eta familia zer diren ulertzea beharrezko abiapuntua dela dio:

La familia es el marco más impórtate de la vida de niños y niñas. Es el lugar de referencia y presencia (...) la influencia es notable y fundamental para la seguridad y el desarrollo afectivo y de la personalidad de niños y adolescentes. (...) La escuela es un lugar de paso y de mayor socialización. (...) los vínculos que ese pueden establecer con el alumno son de menor intensidad que la familia. (32.or.)

Aipatutako aldagaiok eskola arrakasta lortzeko garrantzizkoak direnik ezin uka genezake, familiarekin jarraituz, Rivera eta Milicic-en (2006) artikuluan familiak duen rola; gauzak egiteko modua, jarrerak, sinesmenak eta abar, haurraren garapenaren pertsonal, akademiko eta afektiboaren zutabe dela diote.

Honi gehitu behar zaio, aipatutako autoreek tinko eusten diotela seme alaben eta gurasoen arteko erlazioak eragin handia duela eskolako errendimenduan eta jarreran, haurraren autokontzeptuan modu positibo zein negatiboan eraginez (Rivera & Milic, 2005). Gonzalez (2014) ere bat dator eta aditzera ematen duen moduan, gurasoek hezkuntzarekiko dituzten ideiak eta itxaropenak, haurrari modu inkontzientean transmititu eta curriculumak markatzen dituen alor guztietan eragin handia izan dezake. Frieden (Alcalay, Milicic eta Torretti 2005ean aipatzen den bezala) esanetan haurrak eskolan aurkitu al dituen oztopoei erreferentzia eginez, zera azpimarratzen du: "Es más fácil vencer obstáculos cuando padres y profesores se apoyan mutuamente. Mientras más confianza haya entre ellos, menos amenazante y perturbadores se vuelven los problemas". (Fried 2004:28)

Aurrekoari men eginez, Epsteinen (1995) ikerketek ondorengoa diote (Alcalay, Milicic eta Torretti 2005ean aipatzen den bezala), umeen gurasoek hezkuntza formalarekiko kezka eta motibazioa izanez gero ikasleak gehiago gailentzen direla esfortzu

akademikoetan eta eskolarekiko jarrera positiboagoak dituztela, gura edo jomuga altuagoak.

Palauen (2001: 126-127) ikerketek aurrerago esandako arrazoi guztiak batzen dituzte. Autore hau, lau zimentarritan oinarritzen da, familia eta eskolaren arteko komunikazio beharra defendatzerako orduan:

- Oinarri psikologikoak: haurren garapen psikoebolutiboa dela eta gurasoen, familiakoen eta eskolaren arteko adostasun pedagogikoak beharrezkoak dira. Helburu zein jarduera pedagogikoetan bide bakarra jarraituz, koherentzia eta harmonia lortuko delako. Modu honetan, haurraren hezkuntza prozesua erraztu eta eredu sozialak (ikusten duena) barneratuko ditu.
- Oinarri pedagogikoak: gaur egungo pedagogiak erronka moduan, aniztasunari erantzutea du. Aniztasun honi erantzuteko beharrezkoa da haur bakoitza sakonki ezagutzea eta hori lortzeko gurasoek funtsezko papera betetzen dute. Modu honetan, irakasleak haurraren kontestu soziala eta kulturala ezagutu ahal izango ditu. Hortaz, eskola eta familiarentzako, bientzako, ezinbestekoa da komunikazioa egotea, haurraren ezaugarri eta egoera ezberdinen jakitun izanez gero, “guztizko kontestua” ezagutzea lortuko dutelako.
- Oinarri sozialak: hezkuntza gizabanakoaren sozializazio prozesua da. Sozializazioak eta parte hartzeak, helburu eta ekintzen bateratasuna eskatzen du, umeari garapen sozio-afektibo koherente eta egoki bat eskaintzeko.
- Legezko oinarriak: haurraren hezkuntza erantzukizuna orokorrean familiarena da eta eskolarekin elkar banatzen du. Hala ere, gaur egungo legek eta hauek ezartzen duten curriculuma kontutan hartuz gero, modu esplizituan adierazten dute erantzukizun hauek bien artean elkarbanatuak izan behar direla, eta nekez lortuko dute komunikaziorik egon ezean.

Hortaz, bistakoa da familiaren garrantzia sozializazio prozesurako eta eskolako lorpenetarako. Alcalay, Milicic eta Torrettik (2005) gaur egungo gizartean, egoera sozioekonomikoak indarra hartu eta beste aldagaiak zanpatzen ditu, eta familiaren estatus sozioekonomikoa nahiz eta garrantzitsua izan haurren hezkuntzarako, are garrantzitsuagoa da, familiako klima, antolakuntza, eskolarekin duten komunikazioa eta motibazioa.

1.3. Komunikazioa oztopatzen duten faktoreak

*Lo más importante de la comunicación
es escuchar lo que no se dice.*

Peter Drucker

Alabaina, nahiz eta seme alaben hezkuntzan gurasoen parte hartzeak duen garrantzia azpimarratzen den, beti ez dago argi zertan oinarritzen den parte hartze hau, zein helbururekin egiten den eta zertan erlazionatzen den seme alaben errendimendu akademikoarekin. Ez dago argi zer espero den gurasoen parte hartzeari buruz, ezta ere ildorik edo arau argirik nola lortu gurasoen parte hartze egoki eta orekatu bat, ez gutxiegi ezta gehiegizko erlaziorik alegia. Askotan, sinesmenak, ideiak eta ikusmoldeak ez datoz bat. Palauren (2001) ikerketek adierazi dute, eskolak askotan sozializazio eta garapen pertsonalari garrantzia ematen diola eta gurasoek aldiz, emaitza akademikoei. Haurraren, garapen egokirako beharrezkoa da familia eta eskola bat etortzea eta arestian aipatu bezala garapen prozesu honetan koherentzia eta armonia bat egotea haurraren arrakasta orokorrerako.

Hau dela eta, eskolak -instituzio sozial gisa- familiaren inplikazio egokia sustatzeko beharrezkoa du hauek eskolarekiko atxikimendu gehiago garatzea, horretarako funtsezkoa da, hurbiltasun handiagoa estimulatzen duten egoerak sortzea, gainera, eskola eta familia elkarrentzako eskuragarriak badira, zalantza gabe eraginkorragoak izango dira. (Alcalay, Milicic eta Torretti, 2005).

Horren harira, Gonzalezek (2014) zera dio, egin behar potolo honetan elkarlanean aritzea ez dela lan erraza, izan ere, gehienetan norberak duela arrazoia uste da, eta hortik sortu daitekela lehengo mesfidantzak, “oinarrizko mesfidantza”. Hemendik aurrera, bestea mehatxuzko pertsona modura ikusiko da, eta ez elkarlanean aritzeko pertsona bezala. Irakasleek gurasoak deskalifikatzen dituztela dio Cerrik (1993) (Alcalay, Milicic eta Torrettik, 2005ean aipatzen den bezala), nahiz eta, gurasoek beraien aldetik parte hartzeko interesa izan, azkenean ezgai sentitzen dira eta eskolari ematen diote boterea.

Familia eta eskolaren arteko interkomunikazio falta sakonago azaldu nahian Arón eta Milic-en (2004) ikerketetan oinarrituz, familiaren konpromisua oztopatzen eta parte hartzea ekiditen dituzten faktoreak, eskolako klima eta atmosfera soziala direla diote. Gurasoak errespetatu gabeak sentitzen dira, ez dira konfiantza giroan sentitzen, ezta ongi etorriak, ezta ere entzunak eta beharrezkoak. Epsteinen (1994) teorietan oinarrituz,

(Alcalay, Milicic eta Torrettik, 2005ean aipatzen den bezala) aurrekoari erantzunez eskolak hezkuntza klima positiboa sortu behar du gurasoengana hurbilduz eta estruktura egokiak eskainiz hauen parte hartzea suspertzeko. Eskolako klimak eta familiaren parte hartzeak erlazio zirkular bat osatzen dute: batak bestea elikatuz. Eskola klima positibo batek, familiaren parte hartzea sustatzen du, eskolarekiko gurasoen ikuspegia hobetuz.

Alabaina, kasu askotan, Alcalay, Milicic eta Torrettik (2005) dioten arabera, elkarrekiko ezjakintasunezko, inkomunikaziozko eta desenkontruzko erlazioa sortzen da eskola eta familiaren artean. Cardemilen (1994) hitzetan (Rivera eta Milicic 2006an aipatzen den bezala) arazo horrek txarto ulertuen kate bat sortuko du, eta “guraso deskonprometitu” eta irakasle axolagabeak izango dira emaitza.

Maiztasunez, ikasleek gelan dituzten zailtasun, arazo eta ezgaitasun kognitiboak, emozionalak, sozialak edo jarrerakoak azaltzeko biltzen dira irakasleak gurasoekin. Gauza negatibo hauen aurrean, gurasoek askotan gehiegizko erreakzioak izaten dituzte seme alabekin, kontrola eta perspektiba galduz, bere gaitasunarekin zerikusirik ez duten eskaerak inposatuz, gutxietsiz eta zenbait kasutan tratu txarretara helduz. Eta bilera horien emaitza askotan, guraso eta seme-alaben harremanean eragin negatiboa da. (Milicic, Alcalay, & Torretti, 2002).

Bi esparru garrantzitsu (eskola eta familia) hauen arteko erlazioaren arazoen muinean, adostasun falta dagoela azpimarratzen du Comellasek (2009): “ Posiblemente en que no hemos hablado lo suficiente y no nos hemos puesto de acuerdo acerca de qué creemos que hay que hacer, por qué, y, sobre todo, como podemos colaborar desde el respeto para conseguir un proceso en beneficio de niños y niñas. Ni la escuela ni la familia pueden dar los recursos que necesitan los niños.” (35.or.)

Comellasek (2009), konfiantzazko komunikazioa mozten duten faktoreak aipatzen ditu:

- Mesfidantzazko mugak eraiki familia eta eskolaren artean.
- Sinesgarritasuna kendu familiei edo eskolari, modu honetan erlazio ilun bat sortuz eta haurrak erantzun egoki gabe geldituz.
- Denbora faltagatik eskola eta familiaren arteko komunikazioa galdu.
- Haurren hezkuntzan eragiteko komunikazio beharrik ez dagoela pentsatzea.
- Indargabe utzi helduek (familia edo eskola) hartutako erabakiak informatu eta hitz egin aurretik, nahiz eta bat ez etorri. Eta galdetu aurretik erantzunak interpretatu.
- Zergatik edo zeri buruz erabakitzen ari den jakin aurretik maiseatu.

- Eskolak familientzako antolatutako ekintzei menik ez egitea eta debaluatea.
- Garrantzirik ez ematea eskolak familiekiko erakusten duen hurbiltasuna.

Atal honi amaiera emateko, Santosek (2003) bere liburuan, egozentrismoa eta indibidualismoa direla, parte hartzeak haurren hezkuntzan betetzen duen beharrezko funtzioan indarra kentzen diona eta zenbait kasutan galarazten duena. “Es casi imposible una dinámica de participación en la que los intereses generales se antepongan al bien particular”. (120.or.)

1.4. Komunikazioa indartzeko estrategiak

*Cuanto antes comience la implicación de los padres
con la educación de sus hijos,
más poderosos serán los efectos.*

Cotton eta Wikelund 1997.

Aurreko guztiagatik ondoriozta daiteke oztupoak gainditzeko estrategien beharra dagoela, ala azpimarratzen da “la evidente necesidad de disminuir la distancia entre las familias y las escuelas, para lo cual se debe contar con herramientas que sean propositivas en términos de fortalecer las relaciones, de tal manera que ambos sistemas valoren mutuamente sus roles y hagan una "alianza" para enfrentar juntos la educación de los niños.” (Alcalay, Milicic & Torretti, 2005, parr.20).

Comellasek (2009) ere argi uzten du, ezin bestekoa dela familia eta eskolaren arteko komunikazioan mesfidantza egon ez dadin:

Está claro que no nos podemos permitir iniciar las relaciones educativas desde la desconfianza y el recelo. Afortunadamente, a partir de la proximidad y del conocimiento diario podemos ir construyendo espacios de reflexión compartida y de acercamiento. Por eso hay que fortalecer la comunicación y favorecer, conjuntamente, la creación de un clima positivo y de corresponsabilidad. (30.or.)

Aurrera begirada bat emanez, adostasun faltak inkomunikazioa dakarrela ikusi da, eta komunikazio faltak mesfidantza. Arazoen kate hau ez gertatzeko Comellasek (2009), eskolak instituzio bezala, bien arteko (familia-eskola) komunikazioan beharrezkoak ditu hezkuntzaren inguruko ideiak (zer eskatzen zaien umeei, irakasleei eta gurasoei, eskolan dauden proiektuak, etab.) zein irizpideak (arauak, ekintzak, etab.) azaltzea, haurren garapenaren prozesuaz jakitun egitea, eta hezkuntzari buruz orokorrean informatzea.

Beste alde, familia eta tutorearen arteko komunikazioa ere beharrezkoa da, eta haurra eta familia ezagutzera eramango dira, eskolako ikaskuntzaz informatu eta gauzak adostu beharko dituzte.

Alcalay, Milicic eta Torrettik (2005) dioten arabera, familia eta eskolaren artean elkartasun eraginkor bat egoteko, haurren hezkuntza prozesuan familia eta eskolako klima – atmosfera sozial eta hezkuntzako giro positiboaren artean elkarreragina egon behar da (Arón & Milicic, 2004ean aipatzen den bezala). Beste hitz batzuetan esanda, eskolak familiaren parte hartzea erraztu behar du beraien seme alaben hezkuntza prozesuan eragiteko.

Bestalde Palau (2001) ere ez da motz geratzen gizarte demokratiko bat garen heinean, hala diote behintzat, eskolak ere halakoxea izan beharko lukela azpimarratzean. Gai hau sakon aztertu ostean, Palauk ondorioztatu zuen, bai familia eta bai eskolaren aldetik, prest egon behar direla komunikazio demokratiko bat aurrera eramateko, eta horretarako eraikuntzak estruktura aldetik ere ahalbidetu egin behar duela.

Honi jarraiki, interkomunikazio egoki bat sortzeko Comellasek (2009: 40-132), familiak eta eskolak jarraitu beharreko estrategia batzuk ere aipatzen ditu:

- Eskola eta familiaren aldizkako hizketaldiak egin estutasun eta presa gabe.
- Batzarretara, hitzaldietara edo ikastaroetara joateko zailtasuna izanez gero, hauetan landutako gaiak edo hartutako erabakiak zeintzuk izan diren galdetu.
- Eskola eta familiaren arteko batzarrak maiztasunez egin haurren arazoekin eta zailtasunekin erlaziorik ez dutenak, aspektu positiboak eta aberatsak elkar trukatzuz
- Egunerokotasuna hurrekin, gurasoekin, irakasleekin komentatu arazoak aurreikusteko.
- Gurasoen aldetik, eskolako erabakiak hartzeko interesa izan eta eskolak proposatutako ekintzetan parte hartu komunikazioa hobetzeko.
- Eskola eta familiaren arteko elkarlana bultzatu eta baloratu, konfiantza lortuz.
- Familia eta eskola, bakoitzaren mugak adostu elkarlana aurrera eramateko.
- Haurren segurtasun pertsonala faboratu, inguratzen dien pertsona helduen artean dagoen segurtasuna ikusaraziz.

Estrategiez gain, Rafael Cristobal Haur Psikiatria eta Psikologian adituak, “la continuidad de espacio y personajes familiares, y el espacio y las figuras de apego secundario de la

escuela” (Cristóbal, 2010:400) hiru momentu pribilegiatuetan eman behar direla dio: egokitzapen unean (momentu hau funtsezkoa da lehengo kontaktuak sortzeko, elkar ezagutzeko eta konfiantza zubia eraikitzeko), etxetik eskolara heltzen den unean (gurasoentzako txokoa egongo da eta leku hau interkomunikaziorako erabiliko da) eta eskolan dagoen momentu osoan zehar (guraso txokoak gurasoak nahi adina denbora egoteko aukera ematen du eta tutorearekin pentsamenduak partekatzea, gelako jardueretan parte hartzea edo beste irakasleekin mintzatzea ahalbidetzen du. Boluntariora eta eskolako jai egunetan parte hartzeko uneak ere badira).

2. Egoeraren diagnostikoa: beharrak identifikatzen.

2.1. Diagnostikorako metodologia: diseinua eta prozesua.

Bizkaiko kostaldean kokatzen den Ikastola eta ikastetxeko horretako familiaren arteko komunikazioa aztertzeko, metodologia kualitatiboa erabili da. Ikastolak gaur egun abian duen hezkuntza metodologiak teorian esaten duena eta beste autore aditu batzuek gai honi buruz diotena kontuan hartuta errealitatea behatu eta aztertuko da. Teoria eta praktika bat datozen ikusiz.

Metodologia kualitatiboan, Rodriguezen (1996) arabera, ikertzaileek mundu sozialari buruz modu objektibo, argi eta zehatzean informatu dezakete, horretarako besteen testigantzetan oinarrituko dira, bizitako esperientzia, iritzi eta baloreetatik informazioa eskuratuz.

Diagnostiko hau aurrera eramateko metodologia baten diseinua malgua eta argia izan behar da. Hala dio Quintanak (2006) “ La acción consciente en preparar un plan flexible (...) orientara tanto el contacto con la realidad objeto de estudio como la manera en que se obtendrá conocimiento acerca de ellas” (49.or.). Beste era batera esanda, diseinuak honako informazio hau barne hartu behar du; zein modutara burutuko den ikerketa, zein egoera, modu, denbora eta lekutan egingo den.

Hori horrela, metodologia hau aurrera eramateko fase hauek errespetatu dira:

- a) Teknika: elkarrizketa erdi estrukturatua.

Informazioa jasotzeko, elkarrizketa erabiliko da tresna metodologiko moduan. Quintanaren (2006) hitzetan, jokamolde honek beharrezkotzat jotzen du, ikertuko den

subjektuekin zuzenezko kontaktuan egotea, arazo, gatazka, ahulgune, ezberdintasun detektatu ahal izateko.

Perezen (2002) hitzetan, diagnostiko kualitatibo batean ikertzaileak galdera bidez lortzen du nahi dituen helburuak erantzunen bidez. Kasu honetan erabiliko den tresna elkarrizketa erdi estrukturatua¹ izango da. Elkarrizketa mota honek, subjektuari nahi duen esperientzia, iritzi edo ideia azaltzeko aukera emango dio. Honela, hauen esperientzietan oinarrituz, Bizkaiako ikastola horren barne funtzionamendua eta balioak ere ikusiko dira, pertzepzioak direla beti kontuan izanda. Era berean, guraso zein ikastolak komunikazioa aurrera eramateko dituzten oztopoak identifikatuko dira. Horrek, lan honen helburu nagusia betetzera eraman du, guraso eta eskolaren arteko interakzioa nola bizi duten eta nolakoa den ezagutzera alegia. Guzti horretarako, jakintza gaien inguruko galdera zabalak planteatu zaizkio subjektuari. Bien bitartean, ikertzaileak moderatzaile lanak egin ditu eta diagnostikatu nahi den gaiaren inguruan informazioa lortu.

b) Kontestua:

- Nori: Ikerketa honetako oinarrian, alde batetik, Konfiantzaren Pedagogian eskolaratuta dituzten haurren gurasoen esperientziak eta iritziak jaso dira. Gurasoak aukeratzeko orduan ezaugarri ezberdinak dituzten ama eta aitak aukeratu dira. Aipagarria da, aukeratutako gurasoen artean, 45 urte ingururekin hirugarren umea izan duen amaren, bi gurasoak lanean dauden amaren, guraso elkarteko kide den amaren eta euskararik ez dakien aita baten ahotsak entzungo direla. Beste alde batetik, eskolako irakasle eta koordinatzaile baten bizipenak ere jaso dira eskola eta familien arteko komunikazioaren inguruan.
- Noiz: 2015eko maiatzaren bigarren astean burutu dira elkarrizketak.

c) Edukien azterketa:

- Emaitzak:

Elkarrizketak egin ostean, jasotako datu kualitatiboak kategoria sistema batean indizatu dira ideia deigarrienak eta esanguratsuenak bilduz. Guztira, egindako elkarrizketak 6 izan dira.
- Beharrak identifikatzen:

¹ Elkarrizketetarako erabili den gidoia laneko lehen eranskinean aurkitzen da.

Kategoria sistema osatuta eta emaitzak modu argian ikusita, teoria mailan landu dena aztertu eta ondorio batzuk atera dira. Ondorio hauek, baliagarriak izan dira, arazoei aurre egin edo hobekuntzak proposatzerako orduan.

2.2. Metodologiaren garapena: emaitzak eta beharrak identifikatzea.

Elkarrizketatik jasotako datu kualitatibo antolatu edo ordenatzeko kategoria sistema² bat ireki da. Kategoria sistema honek hiru dimentsio edo aspektu barne hartzen ditu. Hiru dimentsio hauek, elkarrizketa egituratzeko erabili diren berberak izan dira: egokitzapen unea, etxetik eskolarako unea eta egunerokotasunean sortu daitezkeen interkomunikaziozko unek. Arestian aipatu bezala, diagnostikatu nahi den Konfiantzaren Pedagogiako lehen printzipio³ horretan funtsezko papera betetzen dute Cristobalen (2010) hitzetan komunikazio egoki bat emateko orduan. Hori dela eta, elkarrizketan jasotako emaitzak elkarrizketatuen perspektiba subjektibotik une bakoitzean ematen den errealitatea islatuko dute. Hortik abiatuz, eta modelo teorikoarekin alderatuz emaitza batzuk aterako dira.

Kategorien azterketaren emaitzak

- Egokitzapen unea

Parte hartzaileek, Ikastolan une edo fase hau egoki egiten dela gailentzen dute orokorrean. Elkarrizketatutako irakasleen aburuz, une garrantzitsuenetako bat da hau, hemen umeak irakasleekiko lotura afektiboa edukitzea lortu behar duelako eta horretarako umearen erritmoak errespetatu eta familiarekin harremanetan egotea ezin bestekoa dela. Hala diote elkarrizketatutako bi profesionalek:

“Lasai ein bihar dan prozesu bat, umien erritmua errespetatu bihar dana eta horren bitxartez ba pixkanaka goiaz bai gurasuak inplikata eta irakasliok inplikata” A irakaslea.

“Ez dago prisarik, une bakoitzak dauko bere erritmoa, eta bueno ba batzuk denbora laburragoa eta beste batzuk luzeagoa”. B koordinatzailea

Gainera, gurasoak formatuago daudela azpimarratzen du B irakasleak eta horregatik hasi dela egiten prozesu edo une hau askoz hobeto.

² Kategoria sistema hau, bigarren eranskin moduan sartu da lanean.

³ Konfiantzaren Pedagogiako lehen printzipioa “Ikastola, familia eta komunitatearekin komunikazioan” da.

“Orain gurasoek hobeto ulertzen dute zergatik ez da prisarik eduki behar, zergatik etorri behar dan [...]” B koordinatzailea

Guzti horri gehituz, metodologia berri honekin ikastetxe barruko funtzionamendu orokorrak positiborantz jo duela aipatu da, honen arrazoiak: ordutegi malgua, gurasoekin harreman zuzenak eta espazio aldetik umearen erritmoak errespetatzea izan dira. D amak metodologia zaharrean esperientzia izanik eta pedagogia berritzaile honetako kide orain izanik, alderaketa bat egiten du egokitzapen uneari buruz:

“Proiektu hau sortu orduko, ba zirian egun finko batzuk eta, egun finko horretan umia egokitxuta egon bihar zan. Eta on adibidez ba umiak berak markaten dau, hamabost egun, hilabete, zein astebete, bihar gaitxuna bere onduan. Logikuaua topateot, naturalaua topateot eta ba nitzako egokija, oso egokija” d ama.

Elkarrizketetatik une honi dagokionean erantzun positiboak lortu dira gurasoen aldetik. Eskolako profesionalak eta gurasoak bat datoz esandako guztian. Teoriarekin konparatuz, Comellasek (2009) aipatzen dituen estrategiak orokorrean betetzen dira. Alcalay, Milic eta Torrettik (2005) haurren hezkuntza familiak eta eskolak elkarrekin eraman ahal izateko beharrezkoa dutela lotuta eta elkarrekin bide berberetik joatea eta horretarako, komunikazioa hobetzeko tresnak jarri behar dira martxan azpimarratzen duela gogoratu behar dugu. Azkeneko autore hauek esaten dutena gurasoek berretsi egiten dute, esanaz lehendik ona hobekuntza asko egon direla eta horietako bat zuzenezko kontaktua izan da. Zuzenezko kontaktu hau ahalbidetu duten aldaketak espazioa izan da alde batetik, ordutegi malgua bestetik, eta azkenik ikastolako komunitate osoaren pentsatzeko modu aldaketagatik.

- *Etxetik eskolarako unea*

Une honi dagokionean, informazio ugari eskuratu da. Ikastolako profesionalek umeak txikiak direnean ikastolara sartzean tutorea bera hurbiltzen dela diote, eta momentu huetan ere zuzenezko kontaktua egoten dela azpimarratu dute. Gainera, beharrezkoa dala diote harrera momentu hau, haurra egunero ez delako jaikitzen berdin.

Gurasoen testigantzetatik abiatuz, orokorrean irakasleekiko tratua oso ona dela adierazi dute. Une oro irakaslearekin berba egin ahal dutela sentitu dute eta sarrera malgu horrek lasaiago sentiarazten ditu, eta askoz ere gusturago joatea ahalbidetu du. Ordutegi malgu horrek sarrera masiboak ez egotea ere ekarri du berarekin eta horrekin bakoitzak tutorearekin egoteko denbora duela diote. Guzti honez gain, guraso batek bere alabaren jantokiko arazoaren aurrean irakasleak erakusten dion interesa modu positibo batean gehiegizkoa dela azaldu du irribarretsu:

“Berak “por ejemplo” komentautzan jantokikuz eta esauzkun txarto ikusikoba eban edo abisakouzkula arin. Hortaz nik ikusten dot bete bihar dabena baino gehijao beteten dabela, osa andereño modura, ze nahiot esan andereño modura, ba jantokikua beste batek esango leuke ba bueno jantokikua ia ezta niria.” B ama

Hala ere, guraso baten testigantza aipagarria iruditu zait. Guraso biak lanean dauden familiako ama bateri, une honi buruz zer uste duen galdetu diot eta lana dela eta egunero urduri eta presaka ibiltzen dela azaldu du. Guzti honen azpian laneko orduak mugatu egiten diotela aipatu du, eta senarra ere lanean egoterakoan bera egin behar dela haurrak eramatearen kargu:

“Bai agobiantia ixaten da....ze diñot, ni bederatziretarako eon biot biharrian, eta bijak ekarri bidoraz” a ama

Baina, Ikastolan haurrek egindako egokitzapen egokia dela eta, ez duela arazo askorik umeak pozik uzteko Ikastolan, adierazi du.

“Baina eduki neban aste bete edo holan oportretatik hartunda, eta gero segijan lehengoko egunian eon nintzan neu gero esateuzten gero juteko ordutxu bat edo...baina horixe errez errez” A ama

Aipatu beharra dago, teoriarekin alderatu ezkeru une hau, argi dagoela irakasleek beraien aldetik prestutasun osoa adierazten dutela gurasoek nahi dutenean hitz egin edo espazioan bertan egoteko. Baina, ikusi da adibide honetan egoera sozioekonomikoa dela medio familiako emakumea lanera sartu behar izan dela, eta Gonzalezen (2014) ikerketek esaten dute, eskola eta familiaren arteko oztopo bihur daitekeela faktore hau. Hala ere, ama honek bere oportretarako zuen astea haurraren egokitzapen egoki bat egiteko erabili zuen. Honek aditzera eramaten gaitu guraso honen inplikazio maila altua dela bizi duen egoeraren aurrean.

- Egunerokotasunean

Batzar pertsonalizatuak:

Ikastolako profesionalen aburuz, urtean hiru batzar estandar egiten direla esan dute. Hala ere, gurasoak aske direla nahi dutenean irakaslearekin egoteko beharrezkoa ikusten badute edo nahi izanez gero.

“Nahi beste, aber, egoten diraz lehengo modura, urtean hiru batzar estandar”

B koordinatzailea

Batzar mota hauei buruz gurasoek orokorrean ez dituztela behar adierazi dute. Egunerokotasunean sarreran eta irteeran irakasleekin hitz egiteko aukera dutelako eta alde

horretatik lasai daudela igorri dute. Gainera, irakasleetan konfiantza osoa jarri dute edozer delarik abisatuak izango direla pentsatuz.

“Nik biharrizan askorik eztoz sentitzen, ze noian bakotxian beti daukat erantzun bat, beti daukat aukeria egotekua” D ama

“Este año por suerte tengo la oportunidad de llevarle al niño y prácticamente todos los días cruzo palabras con ella para intercambiar opiniones y sensaciones” E aita

Teorian esaten dena kontutan hartzen bada, Comellasen (2009) estrategietako asko zuzen betetzen direla argi utzi digute gurasoen testigantzek. Elkarlana, konfiantza, aldizkako hizketaldiak, segurtasuna, kontaktua eta errespetua dagoela ikusi daiteke Ikastola eta familien artean. Gurasoak fio dira arazo edo zerbait gertatzen den unean harremanetan jarriko direla irakasleak eta elkarrekin konpontzen saiatuko direla.

“Bat ein dou. Baina...(isilunea) eukiko bagenuke zeozer suposatzen dot tutoriaz al dogula gelditxu nahi dogunian.” B ama

Atal honetan, A amak, oso interesgarria iruditu zaidan informazio bat azaldu dit. Bere haur txikia aurreko urtean H.H.1en zegoela eta eguneroko koaderno bat erabiltze zutela irakasleak eta berak eguneroko gauzak apuntatzeko. Eta aurten komunikatzeko sistema hori faltan botatzen zuela.

“Baina, bueno egunerokotasunian kuadernua daukazulez. Eta bijon aldetik idazten dou. Gero faltan botaten da e” A ama

Batzar orokorrak:

Ikastolaren aldetik asistentzia maila ona dela adierazi da, eta hala berretsi dute gurasoek. Guraso elkarteko ama batek, beharrezkoak direla adierazi du, baina garrantzitsuagoak direla egunerokotasunean mantentzen diren hizketaldi laburrak.

Beste batek ordea, B amak aurten joan da lehengo batzarrera eta galduta ibili dela adierazi du.

“Batzar orokorrian apur bat galduta eon nintzan ze eurak iual apur bat badauke aurreko urteko informaziñoia” B ama.

Hala ere, atentzioa jo dit, galdetu diodanean ea bere aldetik interesik erakutsi zuen informazioa galdetzeko eta eguneratuta joateko.

“Ez. Ongoz nahiku”. B ama

B ama honen faktore eragilea benetan garrantzitsua eta erabakigarria da eskolarekiko mantendu dezakeen komunikazioan aipatzen du Gonzalezek (2014). Izan ere, ikastolak bere partetik informazioa emateko prestutasuna adierazi du uneoro. Baina, 45-50

urterekin haurdun geratu izanak eta aurretik beste bi seme alaba izateak, inplikazio maila jaitsi egin dezake eta eskolan gertatzen diren edo ematen den informazioarekiko interesa galdu.

E aitaren kasuan, bere ama hizkuntza gaztelera izanik eta euskara ulertu ezean ez du parte hartzen batzar hauetan. Hala ere, irakasleek bukaeran egiten duten gaztelera-azko laburpenarekin eta emazteak ematen dion azalpenekin konforme dago:

“Sí que es verdad y es de agradecer que al final de la reunión siempre se suele hacer un pequeño resumen tanto en euskera como en castellano” E aita

Formakuntza saioak

Alor honetan, Ikastolako profesionalek asistentzia maila oso altua dela diote, proiektu berria egotean metodologia horren inguruko formakuntza saioak eskaintzen dira. Elkarrekin daramaten bidea dela dio ikastolako koordinatzaileak:

“Alkarregaz, daruagun formaziño moduko bat, orduan bide bakarretik goaz. Eta gustora, asebetetze maila oso handia da” B koordinatzailea

Gurasoen aldetik, erantzun anitzak jaso dira. Elkarrizketatuen gehiengoa ez da joan formakuntza saioetara, eta ez joatearen justifikazioa lana eta haurrak direla diote. Hala ere, kasu honetan hau esan duten gurasoak aitortzen bukatu dute nahi ez dutelako ez direla joan.

“Plantea be enaz ein aldatzia lana, toka jat lana ta listo.” A ama

“irakasliak emoten nabenez nahiku daukat ” a ama

“Baina oin momentuan enao juteko modura. (jajaja) eztakit nik, nik ia pasa dot batzugin adoleszentzia eta dana” B ama

Kasu hauetan ikusi da bi guraso hauek, B amak aspaldi pasatu zuela bere beste bi seme alabekin etapa guztia hau, eta orain interes eta gogo maila baxua duela parte hartu eta beharrezko informazioa jasotzean. Eta A amaren aldetik, lana dela medio edo hala dio ezin dela justifikatzen du, baina ikusi da lan ordua aldatzeko interesik ere ez duela. Hori dela eta, hausnar daiteke, interes falta dagoela eta irakasleak azaltzen dion gauzekin nahikoa dela uste duela.

Bestalde, guraso elkarteko partaide den amak interes handia erakutsi du bere seme alaben hezkuntzaz gain, ikastolako funtzionamendu orokorraren inguruan. Comellasek (2009) aitortzen duen modura, eskolak instituzio modura familiei hezkuntzaren inguruko ideiak eta irizpideak entzuteko aukera eman behar du. Guraso honek bere aldetik, ikastolak

ematen dituen formakuntza ikastaroak aprobetxatzen ditu, interesa du gehiago jakiteko eta bere seme alaben hezkuntzan ekiteko.

Boluntariotza:

Ikastolaren aldetik ateak irekita uzten dira, eta orain arte proiektu berri hau egin aurretik ere, parte hartze eta inplikazio maila altua izan dela azpimarratu nahi izan dute:

“Geuk ikastolan betidanik, auzolan pillo bat egiten dogu. Eta gero curriculum barrutik ere, unitateetan sortzen diren gaietan edo proiektuetan guraso edo familiarren bat edonor etortzen da gauzak aportatzen.” B koordinatzailea.

Alabaina, gurasoen aldetik bi erantzun mota ikusi dira. Parte hartzen duena eta gehiago egon beharko litzatekela aldarrikatzen duena guraso elkarteko ama izan da. Formakuntza saioetan eta gaiaren gainean dago eta beharrezko aspektu bat dela goraipatu du haurraren garapenean laguntzeko eta ikastola komunitate natural eta egokiago bat sortzeko.

“Umia ikastolan itxi eta jasotzetik aparte, era honetako proiektuak esaten dabena umia espazio natural baten egon bihar dala. Nik usteot gu espazio natural horretako parte garila” D ama.

Lanean dagoen ama eta 40 urtetik gora umea izan duen amak ez diote ematen garrantzia askorik ikastola parte hartzeari. Nahikoa dagoela berretsi dute eta ondorengo testigantzetan arrazoitu dute erantzuna:

“Ipuin bat irakurten eta hori...ba ez. Goguaixik bai baina, neure burua ikusten dot enazela kapaz.” A ama

“Ba ez, inkomodo, eta gainera ein nebazan nire denporetan beste bi seme alabakin.” B ama

Guzti honekin ikus daiteke pentsamolde ezberdinak daudela eta parte hartzen ez duten bi guraso hauen aldetik, ohitura falta edo sozializatzeko kultura ezberdinetatik datozela somatu daiteke. Eta horrek, segurtasun eza ekarri die, modu horretan ez bata ez bestea ez lirateke sentituko gustura gela barruan boluntariotzako jarduerak egiten. Bestetik, hiru familia gehiago ditugu, hauek dituzten faktore erabakigarriak komunikazioa gauzatzeko oztopo bihurtzen dira. Emaitzetan ikusi denez, ez dira formakuntza saioetara joan ezta boluntariotzan ibili ikastolan. Hala ere, beste bi uneetan, ikastolako klima dela eta, egokitzapen unea eta etxetik eskolarako uneak egoki egin dituzte eta gustura daude. Horren eragile, ikastolak instituzio sozial gisa, familiaren inplikazio eta atxikimendu maila ona lortzeko erabili dituen estrategiak erabakigarriak izan dira; irakasleen etengabeko formakuntza, familiekiko tratu hurbila, espazioa, ordutegi malgua, eta elkarrekiko eskuragarriak egotea. Alcalay, Milic eta Torrettiren (2005) arabera

beharrezkoa da prestutasun hau eskolaren eta familien aldetik eta modu honetan eraginkorragoak izango dira elkarrekintzak.

Laburbilduz, hauek dira atera daitezkeen ondorio orokorrak uneei dagokienean. Egokitzapen unearen inguruan elkarrizketa ezberdinetatik jaso diren emaitzak orokorrean bat etorri dira. Ikastolaren aldetik, ikastolaren estrukturak, errekurtsioak espazio osoan zehar hobeto banatzea ekarri duela azpimarratu du. Beste alde batetik, guraso txokoak eta egokitzapen malgua egoterakoan gurasoek beste lasaitasun batekin hartu dutela azaldu dute. Gurasoen aldetik, irakasleen tratua oso ona, espazioak umeei asko laguntzen diela eta metodologiaren berri izatean hauraren erritmoak errespetatzen daudela gailendu dute.

Etiket eskolarako uneari dagokionean, ez da egon kontraesanik ikastola eta familien artean. Konfiantzan eta lasaitasunean gauzatzen dela azpimarratu dute guztiek. Irakasleen partetik tratu hurbilagoa jasotzen dutela eta ordutegi malgua dela eta, irakasleekin egoteko aukera dutela. Une hauek, funtsezkoak eta beharrezkoak iruditzen zaizkie bi partekoei, momentu hau pribilegiatua dela eta informazio asko trukatzeko aproposak.

Aurreko une bi hauei so eginez, hirugarren unean kontraesanak nabaritu dira. Batzar pertsonalizatu eta batzar orokorretan asistentzia maila ona izan da, eta interesa dago gurasoen aldetik ikastolak proposatzen dituen batzar hauetara joatean. Hala ere, ikastolatik kanpo antolatzen diren ekitaldi edo formakuntza saioetara elkarrizketatutako lau gurasoetatik hiru ez dira joan sekula. Horrek erakusten digu, ikastolaz kanpo egiten diren gauzetan ez dutela inplikaziorik ezta interesik. Hala edo nola, aukera badutela joateko ondorioztatu da, baina, gogoia falta zaiela ikusi da. Eta boluntariotzari dagokionean, formakuntza saioetara joan ez diren guraso berberak parte hartzerako orduan ikastolan ez dira animatu eta ez dute interes askorik azaldu. Aipatu beharra dago, hiru guraso hauen faktorea, adina, lana (denbora eza) edo hizkuntza dela. Hori medio, formakuntzari eta ikastolan boluntariotzari garrantzia eman dion gurasoa guraso elkarteko kidea den gurasoa da, kasualitatea? edo hausnartzekoa?

Ikusi denez, guraso hauen inplikazio eta parte hartzerako orduan eragin zuzena dute zenbait faktorek; adinak, hizkuntza, guraso elkarteko kide izatea eta guraso biak lanean egon behar izatea. Era berean, nahiz eta hiru familia ezberdin ikertu eta horrez gain ikastolako lankideak, bakoitzak aurkeztutako ideia eta esperientziak antzerakoak izan dira.

Beharrak identifikatzen

Kategoria sistemaren bitartez ateratako emaitzak ikusita ikastola eta familiaren arteko interkomunikazio horretan dauden beharrak identifikatu dira.

Egokitzapen uneari buruz ez dira beharrianak identifikatu. Ikastolako profesionalek eta gurasoek esaten dutena bat datoz. Asko inplikatzaren diren tentuzko momentu bat dela islatu dute.

Etiket eskolarako unean, guraso bakar bat aurkitzen da estu edo urduri goizean goiz lanera joan behar delako eta ez duelako ustekabezko egoerarik aurkitu nahi momentu honetan. Baina, berak aditzera eraman duen modura, egokitzapen unerako umeak behar zuen denbora eskaini zion eta gaur egun ez du arazo handirik izaten une pribilegiatu honetan umea lasai uzteko ikastolan. Beste gurasoek eta ikastolak esaten dutena bat datoz. Beharrezko denbora eskaintze zaie familiei, lasai egiten den une bat da, haurrak, familia eta irakasleak gusturago elkarlana egitea lortu da, konfiantza eta segurtasuna dago elkarrekiko eta bide beretik doazela ikusten dute.

Egunerokotasunen aurkitu ahal ditugun uneak lau izan dira; batzar pertsonalizatuak, batzar orokorrak, formakuntza saioak eta boluntariotzako momentuak. Une hauetan identifikatu dira beharrian aipagarrienak. Hauek dira laburbilduz beharrianak:

1. Egunerokotasunean H.H.0. eta H.H.1ean erabili izan den koaderno guraso eta irakasleen artean komunikatzeko, hurrengo mailetara erabilpena luzatu.
2. Batzar orokorretan aurreko urtean egon ez zen jendeari informazioa eguneratu.
3. Formakuntza saioetara guraso gehiago animatu izan ere, ikusi den bezala guraso batzuk beste kulturaren sozializatuak dira eta kultura honetan sartzeko beharrezkoak dira saio hauek.
4. Boluntariotza saioetan betikoez gain beste guraso batzuei ere parte hartzerantz bultzatu eta azaldu zergatik den beharrezkoa.

Lau behar hauen artean, lehengoa aukeratu da esku hartu eta konponbide posibleak aurkitzeko. Beharrian hau aukeratzeko zergatiak hauek dira. Beharrian hau aipatu didan gurasoak hutsune bat duela nabari da, hitz egiteko tonuan eta aurpegiaren keinuekin adierazi didan moduan. Berarentzat beharrezkoa da neurri batean koaderno hau izatea, lanarekin eta bi ume izanik askotan irakaslearekin gelditzeko aukerarik ez duelako. Gainera, bere adeitasunagatik irakasleari oztopo egiten diola pentsatzen du. Beste aldetik,

haurrak eskolaren eta familiaren arteko erlazioa sentitzeko eta eskolarekiko afektuzko lotura ezartzeko balizkoa litzateke, modu honetan haurra ere inplikatu egingo litzateke koaderno honekin, eramateko eta diseinatzerako orduan alegia.

Aukera aprobetxatuz, eta lehengo elkarrizketatua zelarik, hurrengo elkarrizketatu nien gurasoei koaderno honengatik galdetu egin nien. Harrigarria iruditu arren guztiak bat etorri ziren, adin txiki hauetan beharrezkoa zela izan ere, ez dutelako gauza askorik kontatzen etxean, guraso asko lanean daudela eta ez dutela zuzenezko kontaktua izateko aukerarik, adinak ez duela zer ikusirik haurraren izateko modua behatu behar dela eta behar ezkeru koaderno hori erabili.

“Bai nik usten dot, kasu askotan iual batzen dau amumak edo, ta etxian....ta ixan leike hobetzeko punto bat.” D gurasoa

“Klaro, eta batzuk lau urtegaz be kontaten dabe edo ez dabe kontaten ze nik eduki dot “de todo” etxian. Honbre nik pentsaten dot urte bategaz eta inkluso bigaz bihar ein dala.” B ama

“Otra cosa que nos gusta bastante es que...hay una especie de diario una libretilla en el que se pone pues...todos los días pues como a estado el niño, si come...porque al final (uff) hay veces que vas con prisas y no te da tiempo a coger y a hablar con la profesora y preguntarles a ver qué tal ha ido el día para el niño.” E aita

3. Esku hartzearen diseinua: “Kaiera” ibiltaria

Esku hartze hau, eguneroko baten funtzio beteko duen tresna sena duen koaderno bat izango da. Hau aurrera eramateko, H.H.0. eta H.H.1. mailan erabiltzen duten koadernoko eredutik abiatuko da. Esku hartze honen asmo orokorra lanean dauden edo ikastolara egunero hurbildu ezin diren gurasoei behar duten informazioa eskaintzean datza. Palouren (2004: 201) hitzetan, “se trata de crear un círculo que ese vaya retroalimentando constantemente y que pueda ir enriqueciendo y haciendonos sentir mas unidos”. Autore honen hitzak jarraituz, eskolari lotura eta etengabeko komunikazio honek familiek behar duten aholku eta hitz egiteko uneak aurreikustea ahalbidetuko dituela ziurtatzen du. Aipatu behar da, esku hartze hau martxan jarri eta ebaluatzeko aukerarik ez dudala izan.

3.1. Helburuak

Esku hartze honek markatu dituen helburuak hauek izan dira:

- ✓ Familien lasaitasuna bermatzea
- ✓ Irakasleari haurrari buruzko uneko jakintza ahalbidetzea
- ✓ Irakaslea zein familiaren aldetik eguneroko kontaktua eta informazioa uztartzea.

- ✓ Umearen beharrizanak edo oztopoak garaiz identifikatzeko aukera areagotzea.
- ✓ Arreta pertsonalizatu eskaini ahal izatea.
- ✓ Haurrak ikastolarekiko afektuzko eta segurtasunezko sentimendua izatea. Hala nola, jarduera honetan parte hartuz.

3.2. Kontestua

- Nork burutuko du: Ikastolako irakasleek eta zuzendaritzak.
- Nori zuzenduko zaio: Ikastolako H.H.2ko gurasoei eta behar duten guztiei.
- Nola hartu da erabakia: Ikastolako lehen printzipioaren (Ikastola, familiarekin eta komunitatearekin komunikazioan) diagnostikoa burutuz.
- Helburu orokorra: Familia eta ikastolaren arteko komunikazioa sendotzea.

3.3. Metodologia

Metodologiaren atalari dagokionean, eguneroko honen erabilera gutxienez H.H.2. mailara arte luzatuko da. Adin honetatik aurrera ere aukera egongo da nahi duten edo behar duten familientzat. Horren aurrean, irakasleak identifikatu beharko ditu ume edo familiaren ahulguneak eta eguneroko honen erabilera aholkatu komunikazioa bermatzeko.

Behin martxan jarrita, egunero eskolara sartzekoan familiak egun horretako orria beteta eramane beharko du. Eta ondoren, Ikastolako irteeran irakasleak familia edo zaintzaileari, kasuan kasuko, bueltatu egin beharko dio egun horretan bete behar dituen galderak erantzunda.

3.4. Ebaluazioa

Ebaluazioa, esku hartze hau proposatzerako orduan erabaki diren helburuak betetzen diren ikusteko izango da. Egingo den ebaluazio mota, prozesuzko ebaluazioa edo ebaluazio jarraia izango da. Hots, eskola-prozesu osoan zehar egingo da eta lortutako emaitzek prozesuko zenbait alderdi aldatu edo egokitu ahal izatea da ebaluazioaren ezaugarri nagusia. Horretarako, hainbat ebaluazio tresna erabiliko dira; inkestak, elkarrizketak eta eguneroko behaketak. Honen bidez, ikastolako gurasoen eta irakasleen ikuspuntuak aintzat hartuko dira eman litezkeen aldaketan eta emaitzen balorazioa egiteko.

Jaso nahi den informazioa:

- Eguneroko koaderno hau baliagarria den.
- Irakasle eta familien arteko harremanean nola eragin duen.

4. Ondorioak

Atal honi dagokionean, emaitza orokorrek erakutsi digutena aintzat hartuz, eta planteatzen ziren helburuei begira, diagnostikorako aukeratutako printzipioari dagokionean informazioz hornitu eta diagnostiko kualitatibo bat aurrera eramateko gaitasuna erakutsi da. Beste alde batetik, proiektu honetan hobetzeko gauzak ere badirela frogatu da. Eta komunikazio egoki bat are gehiago hobetzeko proposamen bat diseinatu ahal izan da.

Lan honen prozesua aipatu beharko balitz, zailtasun gehien aurkitu ditudan momentuak marko teorikoan izan dira, zitak antolatu eta koherentzia egoki bat mantentzerako orduan. Hau egin ostean, metodologia erraztasun gehiagoz egin ahal izan da. Izan ere, elkarriketan ateratako emaitzak nahiko argiak izan diren heinean prozesua arindu da eta beharrezko erantzuteko esku hartzea ere momentuan proposatu da.

Prozesuari dagozkionak alde batera utziz, gai honek hezkuntzaren alorrean eta bereziki ikas-irakaskuntzaren konfiantzan duen garrantzia azpimarratu nahi da. Ikastolaren eta familien jarrerak ezagutu eta horiek ulertzeak bide ematen digu hezkuntza sisteman ekiten duten metodologiak, espazioak eta estrategiak hobetzeko eta beharrezkoetara egokitzeko. Hala nola, eskola eta familien arteko komunikazioa are gehiago uztartzeko. Komunikazio honekin interesatu eta honetan esku hartzeak prestatzeak xede haurrek, familiek eta eskolak elkarren artean konfiantza gehiago eskuratzeko eta hezkuntza bide bakarretik joateko modua izan daiteke.

Bukatzeko, lan honetatik jasotako emaitza pertsonalak aitortzea beharrezkoa dela iruditzen zait. Lan hau burutzea, onura pertsonal eta profesional garrantzitsua izan da, guraso zein irakasleekin harremanetan egotea, esperientzia ezberdinak entzutea eta ulertzea, ikuspegi berriak ezagutzea eta guraso modura izan behar diren zenbait balioren hausnarketa egitea.

5. Erreferentzia bibliografikoak

- Alcalay, L., Milicic, N. & Torretti, A. (2005). Alianza Efectiva Familia-Escuela: Un Programa Audiovisual Para Padres. *Pontificia Universidad Católica de Chile*. 2015-01-02an hartua, hemendik: http://www.scielo.cl/scielo.php?pid=s0718-22282005000200012&script=sci_arttext
- Arón, A. M. & Milicic, N. (2004). Clima social escolar y desarrollo personal. Santiago: *Editorial Andrés Bello*. 2015-02-04an hartua, hemendik: http://scholar.google.es/scholar?q=Clima+social+escolar+y+desarrollo+personal&hl=es&as_sdt=0&as_vis=1&oi=scholart&sa=X&ei=n2hKVfn2DsKsUc7ygIAL&ved=0CB8QgQMwAA
- Comellas M^a J. (2009ko apirila). *Familia y escuela: compartir la educación*. Espainia, Bartzelona: GRAÓ, 2009.
- Cristobal, R. (2010). *El niño en la mirada de conocimiento*. Laguna de Duero, Valladolid (Espainia): La Infancia.
- Gonzalez, O. (2014). *Familia y escuela, escuela y la familia. Guía para que padre y docentes nos entendamos*. Bilbo: DESCLÉE DE BROWER.
- Hik Hasi. (2010). Familia eta eskola. Bi instituzio konplexu. *Hik Hasi*. 2015-02-08an hartua, hemendik: <http://www.hikhasi.eus/artikulua/1812>
- Moral Santaella, C. (2006). Criterios de validez en la investigación cualitativa actual. *Revista de Investigación Educativa*, Vol. 24, 147-164. 2015-04-07an hartua, hemendik: <http://revistas.um.es/rie/article/view/97351/93461>
- Palau, E. (2001). *Aspectos basicos del desarrollo infantil: la etapa de 0 a 6 años*. Bartzelona: Ceac. 125-141.
- Palou, S. (2004). *Sentir y crecer. El crecimiento emocional en la infancia: Propuestas educativas*. Bartzelona: GRAO.
- Perez, C.. (2002). Sobre la metodología cualitativa. *Scielo. Rev Esp Salud Pública* 2002; 76: 373-380. 2015-05-06an hartua, hemendik: <http://www.scielosp.org/pdf/resp/v76n5/editorial.pdf>
- Quintana, A. y Montgomery, W. (2006). Metodología de Investigación Científica Cualitativa. *Psicología: Tópicos de actualidad*. Lima: UNMSM. 48- 82. 2014-03-30ean hartua, hemendik: <http://carmonje.wikispaces.com/file/view/Metodologia-de-Investigacion-Cualitativa-A-Quintana.pdf>
- Rivera, M. & Milicic, N. (2006). Alianza Familia-Escuela: Percepciones, Creencias, Expectativas y Aspiraciones de Padres y Profesores de Enseñanza General Básica. *Pontificia Universidad Católica de Chile*. 2015-02-01ean hartua, hemendik: http://www.scielo.cl/scielo.php?script=sci_arttext&pid=S0718-22282006000100010
- Rodríguez, G., Gil, J., García, E. (1996). Metodología de la investigación cualitativa. *Metodos de investigación interdisciplinaria* 2015-05-06an hartua, hemendik: http://metodosdeinvestigacioninterdisciplinaria.bligoo.com.co/media/users/10/528344/files/53953/INVESTIGACION_CUALITATIVA_Rodriguez_et_al.pdf

- Salgado Lévano, A. (2007). Investigación cualitativa: diseños, evaluación del rigor metodológico y retos. *Scielo*. Perú. 2015-04-08an hartua, hemendik: http://www.scielo.org.pe/scielo.php?pid=S1729-48272007000100009&script=sci_arttext
- Santos, M. (2003). *Aprender a convivir en la escuela*. Universidad Internacional de Andalucía. Akal.
- Tuesca, V., Maritza, M. & Navarro, L. (2012). Estrategia educativa para la participación de los padres en compromisos escolares. *Escenarios*, 2015-03-16an hartua, hemendik: <http://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=4497332>

ERANSKINAK

1. ERANSKINA: Elkarrizketarako gidoia

Eranskin honetan, elkarrizketan parte hartutako gurasoei burututako elkarrizketa plantilla agertzen da. Esan bezala, komunikazioa aztertzeko lau guraso talde ezberdinei egingo zaie elkarrizketa eta horrez gain Ikastolako irakasle eta proiektuko koordinatzaileari:

Gurasoak

- A- Guraso biak lanean dauden familiako ama
- B- 40 urtetik gora haurra izan duen ama
- D- Guraso elkarteko kide den ama
- E- Ama hizkuntza gaztelera duen aita (euskara ez daki)

Ikastolako langileak

- A- Ikastolako H.H.0ko irakaslea
- B- Ikastolako Konfiantzaren Pedagogiako koordinatzailea

Sei talde hauen esperientzia eta bizipenak ezberdinak direlakoan burutu da bereizketa hau. Galdera hauen helburua, Ikastolak eta familiek duten interkomunikazio maila ikusteko da. Horretarako, guraso eta langile hauen errealitate eta esperientzien hurbilketa egingo da.

Elkarrizketan hiru atal izango ditu, atal hauek Cristobalen (2010) Pedagogiak esaten dituen hiru une pribilegiatu kontutan hartzen ditu. Garrantzitsua iruditu zait hiru une hauek aztertzea, izan ere, Ikastolako pedagogia berritzailea Cristobalen Konfiantzaren Pedagogia deituriko horretan oinarritzen da.

GURASOAK

DATA:	
DATU PERTSONALAK	
NONGOA:	LAN EGOERA:
SEME-ALABEN ADINA:	EGOERA ZIBILA:
Komunikazioan eragin dezakeen FAKTOREA:	

Sarrera:

Haur Hezkuntzako gradu amaierako lan bat egiten nago. Lan honen helburua Konfiantzaren Pedagogiako lehengoko printzipioaren (Ikastola, familiarekin eta komunitatearekin komunikazioan) diagnostikoa burutzean da. Horretarako, zure esperientziak biltzea gustatuko litzaidake aspektu honetan. Jasoko den informazioa guztiz konfidentziala izango da.

Hasteko,

- Zer dakizu Pedagogia honi buruz?
- Zergatik eskolaratu dituzu zure seme alabak hor?

Egokitzapen unea:

Une hau, umea lehen aldiz eskolara eramaten den momentuari deitzen zaio. Eta umea ikastolara egokitu bitartekoa.

- Zer deritzozu une honi buruz?

Etxetik eskolarako unea

Une hau egokitzapen une eta gero, egunero egiten den trantsizioa da, eskolan umea uzten den momentuari deitzen zaio.

- Nola bizi duzu une hau?

Egunerokotasunean

Batzar pertsonalizatuak

- Ze iritzi duzu?

Gradu Amaierako Lana. Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola
Batzar orokorrak

- Ze iritzi duzu batzar hauei buruz?

Gurasoen formakuntza ikastaroak

- Zer deritzozu ikastaro hauei buruz?

Bestelakoak:

Nola bizi dituzu:

- Boluntarioritza
- Jaialdiak

BUKAERAKOAK:

- Zer nolako garrantzia du komunikazio egoki bat egotea eskola eta familiaren artean? Proposamenik hobetzeko?

IRAKASLEA eta KOORDINATZAILEA

DATA:
DATU PERTSONALAK
ESKOLAKO POSTUA:

Sarrera:

Haur Hezkuntzako gradu amaierako lana, ikastolako lehen printzipioaren diagnostiko bat egitean datza. Horretarako, beharrezko dut zuen esperientziak eta iritziak entzutea. Elkarrizketa honen bidez jasoko dan informazioa guztiz konfidentziala izango dela azpimarratzen dut.

- Zergatik da garrantzitsua eskolaren eta familiaren arteko komunikazioa?

Egokitzapen unea

- Nola bizi duzue momentu hau?

Etiket eskolarako unea

Gradu Amaierako Lana. Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola

- Ze iritzi duzu une honi buruz?

Egunerokotasunean

Batzar pertsonalizatuak

- Zer deritzozu batzar mota honi buruz?

Batzar orokorrak

- Nola bizi dituzu?

Gurasoen formakuntza ikastaroak

- Zein iritzi duzu?

Bestelakoak:

Azaldu familien parte hartzea jarduera hauetan:

- Boluntarioria
- Jaialdiak

BUKAERA KOAK:

- Errealitatean dagoen komunikazioari buruz ze iritzi duzu? (konfiantza dago, inplikazio maila...)

2. ERANSKINA: Kategoria sistema

Kategoria sistema honek bere barnean hartzen ditu elkarrizketako transkripzioetatik jasotako esaldi esanguratsuenak. Kategoria sistema hau hobeto ulertzeko, ezker aldeko zutabearen elkarrizketatuak indizatuak agertzen dira modu anonimo batean. Goiko lerroan diagnostikatu nahi den dimentsioa edo unea izendatzen da.

KATEGORIA SISTEMA	1. EGOKITZAPEN UNEA	2. ETXETIK ESKOLARAKO UNEA
A. irakaslea (H.H.0)	<p>“umia etxetik ikastolara pozik etorteko helburua lortuta. Ta horretarako dauko gurasua, ama, aitxitxa, amuma, konfijantzazko pertsona bat eta lortzera irakasliok bere pertsona konfiantzazko pertsona bat izatera. Bai bere tutoria eta bai inguruan daozen beste irakasliak.”</p> <p>“da lasai ein bihar dan prozesu bat, umien erritmua errespetatu bihar dana eta horren bitxartez ba pixkanaka goiaz bai gurasuak inplikata eta irakasliok inplikata”</p>	<p>“Goizian goiz beti eitxen dou harrera momentu bat, ba gurasuak etorten dirazenen umiaz ba berba, beti umia zentrua ixanda ez”</p> <p>“ia gero umia goixian goix hasten da ingurua esploratzen eta lasai dagonian ba ia ama edo aitxak agurtzen dau eta juaten da”</p> <p>“Baina hori hasieran ixaten da, gero ia ikasturte erditxik aurrera ia ez da egoten arazorik, ia lasai egoten dira”</p> <p>“bueno gauzia da guk berton badaukagu harreman gehijengua zaintzailiaz edo amuma edo aitxitxa, ze guraso asko lanian dagoz”</p>
B. koordinatzailea (Konfiantzaren Pedagogiako koordinatzailea eta psikopedagogo)	<p>“igartzen dana da proiektu honekin beste lasaitasun batez egiten dala”</p> <p>“orain gurasoek hobeto ulertzen dute zergatik ez da prisa eduki behar, zergatik etorri behar dan”</p> <p>“ume bakoitzak dauko bere erritmoa”</p> <p>“gurasoak egia esateko formatu egin dira pixkat horretan pixkat azalpenak eman behar zaie, zergatik eiten dan, umearen atxikimendu hori lortu egin behar dala hemengo profesionalekin, prisa ez dagoa”</p>	<p>“egunero ez dira berdinak, ez dira berdina altzaten, egunero gauza ezberdinak gertatzen dira, eta orduan prozesu hori, banaketa prozesu hori, gurasoengandik banatze prozesu hori diferentia izaten”</p> <p>“gero eta normalidade gehiagoaz. Egun ezberdinak dagoz, baina aurkitzen dozuz aitxitxa amumak, zaintzaileak, amak, aitxak, eta badoiaz ulertzen eta ondo, prisa barik.</p> <p>“txikiagoak direnean normalean erreferentekoa hurbiltzen da eta sartzen da trankil trankil”</p>

<p>A. ama (bi gurasoak lanean)</p>	<p>“Lehengotan hasten nintzan ba iual orduerdi- ordutxu bat edo egunian eta... Baina eukineban aste bete edo holan oporretatik hartunda”</p> <p>“Eurak etorten zirian emoteutzuen ongietorrija goixero goixero, zer, zelan, gaba, diñot hartu emona oso ona.”</p>	<p>“bai agobiantia ixaten da....ze diñot, ni bederatziretarako eon biot biharrian, eta bijak ekarri bidoraz.” “Baina bueno, ondo.”</p> <p>“lehengo eruten dot nagosija, eruten dot bere gelara, izteot bertan, agur esan eta gero txikiña eruten dot gora. Ta horixe, itxi motxilia, bere kuadernua emon, esan gaba zelan pasa daben eta hori, eta juan.”</p> <p>“Generalian bera etorten da, umiana etorten da.”</p> <p>“Ze bi edo hiru dagoz, orduan diñot bata ezpada ba da bestia.”</p>
<p>B. ama (40 urtetik gora izan zuen umea)</p>	<p>“Oso ondo, eztau bihar ixan gauza askorik. Baina ondo. Tratua oso ona”</p> <p>“Nitzako onduen daukena da ordutegija, flexiblia. Hori da buah...(jajaja) onena. 9etatik 10ak arte aldozu eruan.”</p> <p>“Nik pentsaten dot beste ume batzuntzako iual gehijao kostaten jakenari al izatia eon gurasuak edo ama edo aitxa edo nonor, horrek be lagunduko dabela”</p> <p>“Orduan nitzako holan ideala da eta horretxegaitxik sartun dot ikastolan.”</p> <p>“sartun zan hain pozik eta urten zain hain pozik”</p>	<p>“Oso ondo. Irakasliaz al dot ein berba nahi dotenian. Ze hamen al zarilez sartun, eta mundu guztija doia “mas relajau”, aldozu itxon tutoria badao beste pertsona bateaz berbetan.”</p> <p>“Bai oso disponible daoz”</p> <p>“al zarilez eon...ah! Hori be hasieran kostea ein jakun”</p> <p>“hamen molestaten al naz eon edo eztakitx. Adibidez nire alabia ezta entera bez ei adaptaziñoiaz, ta neu adapta bir ixan naz. Neu ta neure gixona.”</p> <p>“Jantokira juten da, eta oso txarto pasaten dau. Orduan tutoria alegintzen da nahiz eta ez preunta geuk, esaten umiak zer jan daben”“Orduan ba bera preokupa eitxen da”</p> <p>“nik ikusten dot bete bihar dabena baino gehijao beteten dabela”</p>

D. ama (guraso elkarteko partaidea)	<p>“Bueno gure baloraziñoia izan da ba, umiak markaten ixan daben momentuan ba hori ixan da, eta hori ixan da guri trankilidadia eta konfijantzia emon gaitxuna. Ezta ixan ba onarte bertan ikastolan be bai inkluso proiektu hau sortu orduko, ba zirian egun finko batzuk eta, egun finko horretan umia egokitxuta egon bihar zan”</p> <p>“Harremanez oso zuzenekuak diraz, bueno beti, egunero daukagu aukeria eurakin egoteko”</p>	<p>“niri atzarian neure laneko ordutegijak mugatzen nau.” “nik problema barik daroiat. Malgutasun horrek be atzarian, ez? Gu egon al ixatia, umiak erabakitxia, ba bueno al zara jun trankil”</p> <p>“on atzarian ba al garilez sartu umia esnatu eta umiak bir daben denporara.” “Asko be trankillao”</p> <p>“Eguerdijetan be adibidez aukeria daukazu ta juten naz berana eta bertan eoten naz beraz ba pelikula bat kusten edo pintxeten, jolasten mozorrotzen...”</p>
E- gurasoa (ama hizkuntza gaztelania)	<p>“la verdad, me parece un momento... muy importante”</p> <p>“las profesoras sí que le ponían mucho de su parte”</p> <p>“Los suegros tenían la posibilidad de quedarse allí”</p>	<p>“La profesora nada más entrar los recibía”</p> <p>“hay una especie de diario una libretilla en el que se pone pues... todos los días pues como a estado el niño hay veces que vas con prisas y no te da tiempo a coger y a hablar”</p>

3. EGUNEROKOTASUNEAN AURKITZEN DIREN UNEAK				
	BATZAR PERTSONALIZATUAK	BATZAR OROKORRAK	FORMAKUNTZA SAIOAK	BESTELAKOAK (boluntariotza)
A. irakaslea (H.H.0)	<p>“Hasi orduko eurakin eitxen dou batzartxu bat, zelan egingo dou”</p> <p>“gero, irakasliaz komunikatza bihar dabenian deitxu edo etorri egiten dira ikastolara, gehijenetan ahozko komunikaziñoia ixaten da. Etengabeko komunikazio bat. Eta batzar pertsonalizatua urte amaieran bai emoten”</p>	<p>“orokorrian ona. Gainera proiektu barrijaz gehijao ondik”</p> <p>“gehijen bat, karta bidez eta e-mailez. Eta guk haur hezkuntzan ahoz be bai asko.”</p>	<p>“proiektu barrijaz gaozenetik emoten dira aukerak zapatuetan urtian bi-hiru saio badagoz”</p>	<p>“aukeria dago haur hezkuntzan”</p> <p>“etengabian nahi dabenian etorri”</p>

	“3-6 urteko etapan, lau hilabeteka”			
B. koordinatzailea (Konfiantzaren Pedagogiako koordinatzailea eta psikopedagogo a)	Nahi beste, aber, egoten diraz lehengo modura, urtean hiru batzar estandar	“Eta batzarretara egia esan jende asko etortzen da”	“parte hartze oso handiak eta satisfactorioak, gurasoak oso pozik eta geu be bai. Alkarregaz, daruagun formaziño moduko bat, orduan bide bakarretik goaz”	“Geuk ikastolan betidanik, auzolan pillo bat egiten dogu Eta gero curriculum barrutik ere, unitateetan sortzen diren gaietan edo proiektuetan guraso edo familiarren bat edonor etortzen da gauzak aportatzen.”
A. ama (bi gurasoak lanean)	<p>“Ba txikiñaz eztoz eduki bapez, bueno bat hasieran, adaptaziñoia ein baino arinao”</p> <p>“Baina, bueno egunerokotasunian kuadernua daukazulez. Eta bijon aldetik idazten dou. Gero faltan botaten da e”</p> <p>“gero askotan eztaixu eguna zelan jun dan, bai berak umiak konta al dotzuna. “Baina, egunero ezara jungo andereñuana”</p> <p>“edozer konta al dotzatela usteot eta berak be bai. Edozein problema daola.”</p>	“Ondo generalian e, ondo.”	<p>“Ni batera be enaz juan, ze azkanian bijakin, orduagatzik, eztaukatelako bez noreaz itxi,...”</p> <p>“plantea be enaz ein aldatzia lana, toka jat lana ta listo.”</p> <p>“irakasliak emoten nabenaz nahiku daukat ”</p>	<p>“Ba parte hartu neban Ta bueno.”</p> <p>“Ba listo pasa zan.”</p> <p>“baina beti ibili garila laguntzen edozertarako bir bada laguntzia”</p> <p>Ipuin bat irakurten eta hori...ba ez. Goguitxik bai baina, neure burua ikusten dot enazela kapaz.”</p> <p>“Ze iual ikastolan auzolanian hori ba inoz enaz etorri diñot. Segun ze gauzetarako. Nik neure medidara”</p>

<p>B. ama (40 urtetik gora izan zuen umea)</p>	<p>“Bat ein dou. Baina...(isilunea) eukiko bagenuke zeozer suposatzen dot tutoriaz al dogula gelditxu nahi dogunian.”</p>	<p>“bueno egija esan, batzar orokorrian apur bat galduta eon nintzan ze eurak iual apur bat badauke aurreko urteko informaziñoia”</p>	<p>“Ez naz jun” “Ongoiz nahiku.” “Baina oin momentuan enao juteko modura. (jajajja) eztakit nik, nik ia pasa dot batzugin adoleszentzia eta dana”</p>	<p>“ez hori eztot ein. Zeozer eskatu eben baina ni enintzan jua e.” “ba ez, inkomodo, eta gainera ein nebazan nire denporetan beste bi seme alabakin.”</p>
<p>D. ama (guraso elkarteko kidea)</p>	<p>“Nik biharrizan askorik ezto sentitzen, ze noian bakotxian beti daukat ersantzun bat, beti daukat aukeria egotekua.” “Gero, batzarrak eskatu eta emon eitxen diraz” “Beti akordaeraitxen dau gelditzeko momentuak.”</p>	<p>“Biharrezkuak diraz, nitzako batez be hortxe eitxen dalako ikastolien funtzionamendu orokorren inguruan berba.” “Neutzako egunerokorako asko be inportantio diraz bestelako batzarrak ba aurrz aurrekuak eta hori.” “Orokorrian guraso asko etorten da”</p>	<p>“Cristobalen formakuntzetara jua gara, eta proiektu hau egin orduko beste formakuntza batzutan be bai parte hartun dou.” “Ta nik pentsaten dot derrigorrezkua dala.” “Zemat eta danok jua ikuspegi bardinaz umientzako hobiau da.”</p>	<p>Ba gehijao eon biharko litzateke neuk usteot “Umia ikastolan itxi eta jasotzetik aparte, era honetako proiektuak esaten dabena umia espazijo natural baten egon bihar dala. Nik usteot gu espazijo natural horretako parte garila” “Adibidez, gela barruko boluntariotza lehen be eitxen zan eta on be eitxen da” “Auzolanian parte hartze gehijao egon biharko litzatekeela usteot Ze nik usteot erreza hartzen doula parte gaur umia daonian gelan”</p>

E- gurasoa (ama hizkuntza gaztelania)	“este año por suerte tengo la oportunidad de llevarle al niño y prácticamente todos los días cruzo palabras con ella para intercambiar opiniones y sensaciones”	“Yo no sé...euskera pues la verdad que yo no participo en la reunión.” “sí que es verdad y es de agradecer que al final de la reunión siempre se suele hacer un pequeño resumen tanto en euskera como en castellano”	“todo el trabajo que se me acumula durante la semana tengo que hacer los fines de semana y la verdad es que no tengo tiempo”	“yo nunca he participado en ninguna. al final al no saber euskera” “y me da un poco de vergüenza el ir”
--	---	---	--	--